


y metodología. La recomendación de su lectura, no puede eludir la sinceridad de una crítica, aún por somera que sea ésta.

Oscar Abalde Cantero



URBELTZ, Juan Antonio

Los bailes de espadas y sus símbolos. Ciénagas, insectos y “moros”

Pamplona : Pamiela, 2000. – 615 orld. : ir. ; 22 cm. - ISBN 84-7681-320-1

Juan Antonio Urbeltz euskal dantza tradizionalaren ikertzaile garrantzitsuenetakoa da. Folklore ikertzaile lana, Donostiako Argia dantza taldearen zuzendaritzarekin uztartu du azken 35 urteotan. Tarte horretan liburu eta artikuluetan aztertu eta Argia dantza taldearen bidez praktikan jarri dituen proposamenek, funtsezko eragina izan dute euskal dantza taldeen norabidean.

Mircea Eliade edo Violet Alford-ek folklorea ikertzeko zuten ikuskeratik abiatzen da Juan Antonio Urbeltz baita ere. Pentsamendu arkaiko eta majikoaren testuinguruan sortutako erritualen aztarnatzat ditu gaur egun arte iraun duten folklore dantzen azken arrastoak. Erritualen arkeologiatik abiatuta ohitura horiek sortu eta garatu zituen gizartearen pentsamoldeak eta ekoiztu zituzten kultur adierazpen konplexuen funtzioak ezagutzen saiatzen da. Britainiar irletatik hasita, Transilvania eta Balkanetara, eta Iberiar penintsularaino, mendebaldeko Europa osoa hartuko zuen nekazari kulturaren pentsamendu sistemaren azken arrastotzat ditu zenbait eskualdetako ohitura eta dantzak. Baina aipatutako autoreen oinarritzko abiapuntua konpartitu arren, horiek iragarri gabeko bidea jorratu du Urbeltzek, folklore ikertzaileen aldetik arreta urria eskuratu duten intsektuak bezalako natur izaki txikiari berebiziko pisua eskaini baitie bere proposamenean.


Ihaurerietako eta San Juan inguruko dantzak eta ohiturak aztergai hartuta, eta Errumaniako calusari eta Britainia Handiko morris dantzekin konparatuz, pentsamendu sistema arkaiko horren bidez azaltzen ditu hiru kultur esparru horien artean, dantza alorrean etnografoek aurkitu izan dituzten parekotasun harrigarriak. Neolitotik etor daitekeen nekazari bizimoduari zilbor-estez lotutako azalpena da Urbeltzek proposatzen duena. Nekazari kultura horrek intsektuekiko mendekotasun latza bizi du, bai uztak hondatzeko eta baita izurriteak hedatzeko duten boterearen ondorioz. Beraz, intsektuei aurre egiteko erritualen testuinguruan kokatzen ditu Juan Antonio Urbeltzek neguko ihauteri zein udaberri-udako eapatadantzak. Horrela, dantzariak intsektu tankeraz mozorrotzen dira ihauteri, ezpata-dantza eta mairuen dantzetan, eta gizarteak eragin ditzaketen kalteetatik aske uztearen truke hamarrekoa ordaintzen die, menderatu egiten ditu eta haien sorleku diren herri inguruetakoa urputzu eta erreka

baztarrak suntsitzen ditu. Ihauterietako maskarei “funtzionalismo sinbolikoa” aurkitzen die Urbeltzek. Intsektizazio horren eredu adierazgarrienetakoa otiarena da autorearen iritziz, eta uztentzat horren kaltegarria den intsektu horren metafora lirateke zaldi, behi, hartz eta ahuntz mozorroz erritualetan agertzen diren hainbat pertsonaia. Ezpata-dantzetan euskaraz “ezpata” izenarekin ezagutzen den intsektu erasotzailearen metafora aurkitzen du autoreak eta eltxo eta ezpaten mugimenduen antzekoak antzematen ditu dantzarien urratsetan.

Gaixotasun eta izurrien eramale direnez, intsektuek mairua, ijitoa, judua edo atzerriarraren itxura hartu dute giza-kulturan. Halaber, Britainiar uharteetako dantzen ikerzaileren artean literatura franko ekoiztarazi duen morris dantzen jatorriari buruzko eztabaidara proposamen berri bat plazaratzen du liburu honetan Urbeltzek. Morris-a edo mairua, ur zingiratsuetan, “moorland”-ean, beraz, sortutako eltxoaren, eta oro har intsektuen, metafora bezala aurkezten du. Baina mairuen intsektizazioari buruzko hipotesi hori morris dantzetatik aurrerago doa, Europako hainbat eskualdetan ospatzen diren mairuen inguruko erritualei argi egiten saiatzeko bidea ematen baitio. Modu horretan, historikoki mairuen presentziarik izan ez zuten eskualdetan mairuen inguruko erritual sustraituen jatorria azaltzeko bide bat eskaintzen du Juan Antonio Urbeltzek. Eta beste horrenbeste gertatzen da calusari-en dantzak eta erritoko argitzeko saioarekin, calus zaldiaren baliokide sinboliko bezala aurkezten zuten ikerketetatik harantzago urrats bat emanez zaldi horien atzean ezkututzen den otiaren metafora proposatzen baitu autoreak.

Hizkuntzalaritza, folklorea, literatur tradizioa eta naturaren azterketa baliatzen ditu Urbeltzek bere proposamena sustengatzeko. Hizkuntzalaritza eta metaforen konzientziak eragindako berrikusketak iradokitzen dituen proposamen etimologiko berriek pisu handia dute autoreak mahai gainean ezartzen duen hipotesiaren garapenean. Dantza, erritual, tradizio eta oro har Europako folkloreak ezagutza zabalari etekina ateratzen dio Urbeltzek eta ahozko zein idatzitako literatur tradizioan bildutako lengoaia metaforikoarekin uztartzen du. Folkloreko errito eta historiako kontakizunak adierazpen poetikoak bezala irakurtzen ditu Urbeltzek, eta haietan aurkitzen dituen metaforak ager arazten ditu.

Oier Araolaza



OSTOLAZA ELIZONDO, Mª Isabel
Gobierno y administración de Navarra bajo los Austrias. Siglos XVI-XVII
Pamplona : Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y Cultura, 1999. - 346 p. ; 24 cm. - (Serie Historia ; 97). - ISBN 84-235-1917-1

La incansable labor investigadora de Mª Isabel Ostolaza Elizondo se plasma en un nuevo libro en el que la aportación más destacada es el esfuerzo de explicación y síntesis de la génesis, desarrollo, funciones y atribuciones de las instituciones nava-